

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1689

235/2013 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritzako Ebaluazio Ekonomikoko zuzendariordearen lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritzako Ebaluazio Ekonomikoko zuzendariorde lanpostua betetzea komenigarritzat jotzen denez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren 8. artikuluan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publiko iragartzea erabaki du Zuzendaritza honek. Hona hemen

OINARRIAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen bitartez, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritzako Ebaluazio Ekonomikoko zuzendariordearen lanpostua betetzeko deialdia egiten da, eta bertara honako hauek aurkez daitezke: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoak (funtzionarioak, estatutarioak nahiz lan-kontratuko langile finkoak), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko nahiz bere erakunde autonomoetako funtzionarioak eta baldintzak betetzen dituen beste edozein. Hona hemen bete beharreko baldintzak:

- 1.– Titulazio akademikoa: A1/A2 Taldeko edozein lizentziatura unibertsitarioren jabe izatea.
- 2.– Hirugarren hizkuntza eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.
- 3.– Lan-esperientzia. 5 urteko esperientzia A1/A2 Taldeei dagozkien eginkizunetan.

Bigarrena.– Interesdunek Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pertsonal Zuzendaritzara igorri beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke eskabideak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, honako hauek jasotzen dituen curriculum vitae aurkeztu beharko dute:

- Titulu akademikoa.
- Orain arte betetako lanpostuak.
- Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan esperientzia.
- Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki iritzitako beste edozein merezimendu. Bereziki baloratuko dira Zuzendariordetza honek kudeatu beharreko arloekin zerkusia dutenak, batez ere, gastuaren ebaluazioari eta kontrolari dagozkienak.

2013ko apirilaren 9a, asteartea

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dituzte. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Zuzendaritza Gerentzi honen ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsua aurkeztu ahal zaio Osakidetzako zuzendari nagusiarri hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gurutzeta-Barakaldo, 2013ko otsailaren 28a.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.